



EUSKAL SAGARRAREN ARDOA ZABALDU BEHARREKO ALTXORRA

Besoa luzatu, botila etzan, eta hori-berde koloreko isuri-hari bizia txinparta eztanda batean hautsiko duen edalontzian sartzen da. Aparra dantzan, antzekorik ez duen lurrin indartsua askatuz, denbora luzez gordetako dohainak edertasun osoenean une labur batez eskaini, eta berehala desagertzen da zorioneko baten zintzurretik¹ behera. **GURUTZE JAUREGI. Argazkiak: AMAIA ZABALO.**

Horixe da sagardoaren **patua**², bizitza laburra, baina sutua. Bere izaeran, zeresan handiena sagarrak du, noski. Nolakoak sagarrak, halakoa sagardoa. Gaziak, gozoak, gezak, mikatzak; hamaika **dasta**³ betekizun ezberdinetarako. Gezak, esate baterako, edariaren iraun graduaren erantzulea da, eta gozoa alkoholarena. Zapore mota nahasketa beraz, berebizikoa da desiratutako emaitza erdiesteko. Sagardogileak kontu handiz ibili ohi dira sagar motak aukeratu eta nahasketa formularen ehunekoak zehazterakoan. Bakoitzak bere baserri, herri edo familiaren ohitura jarraitzen badu ere, orokorrean, honako ereduak da erabiliena: %50 sagar garratzak, %30 mikatzak eta %20 gozoak.

Zaporeaz gain, fruituaren jatorriak badu zeresanik sagardoaren emaitzan. Euskal He-

rriaren kasuan, jakina da egungo **sagastiek**⁴ ez dutela sagardo ekoizpenak behar adina sagar ematen eta kanpoko sagarrak ekartzea beharrezkoa izaten dela. Gutxi gorabehera erabilitakoaren %35 da soilik euskal sagarra, eta gainontzekoa, besteak beste, Galizia, Asturias eta Normandia herrietatik ekarri ohi da. Premia horri erantzuteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak sagastiek **sustatzeko**⁵ plangintza bat abiatu zuen 1982an, eta, batez beste, 6.000 landarentzako diru laguntza eman duen urtero (aurten, 3 euro sagasti bakoitzeko, 100dik gora landare dituen ekoizlearentzat). Era berean, Eusko Jaurlaritzak emandako beka bati esker, EHU eta sagardogile talde batek euskal jatorriko sagar mota ezberdinek sagardoarentzat dituzten ezaugarri eta aukerak ikertzen dihardu.

Baserria sagarraren oinarri

Hala eta guztiz ere, elkarte, sagardogile eta administrazioak berak adierazten dutenaren arabera, arrazoi ezberdinak direla medio, benetan neketsua da sagar produkzioa haztea. Iñaki Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Fruitu Garapenerako teknikariaren iritziz, baserrien gainbeherak zeresan handia du horretan, sagardogile batzuek beren sagasti soro propioak dituzten arren, ekoizle nagusiak baserritarrak dira, eta beraz, baserriak murriztean sagar **ekoizpena**⁶ ere jaitsi egiten da. Larregain sagardotegiko Joxe Lasarteren aburuz, euskal sagarraren egungo egoerari buelta emateko, sagardogile, elkarte eta baserritarrak gehiagotan bildu eta antolakuntza bateratuagoa izatea au-